

Arrantzaleen lansariak. Zatikako banaketa sistemaren azterketa

(Fishermen's wages. Examination of the allotment system with respect to each individual party)

Pérez, Pío

Euskal Herriko Unibertsitatea

Ignacio M^º Barriola Eraikina

Elhuyar Plaza 1

20018 Donostia

BIBLID [1137-439X (2002), 21; 39-48]

Arrantza arloan, XII. mendetik gaurdaino heldu den ordainketa sistema indarrean dago. Itsasbazterreko azpisektorean hau nabariagoa bada ere, altuera eta altuera handiko azpisektoreetan antzekoa gertatzen da. XII. mendean artisauek lanetan erabilitako ordainketak eta, gaur egun, arrantzaleei ordaintzeko dagoen antzekotasun handiak agertzen ditu itsastar komunitateetan. Arrantzaleek bere lanaren truke jasotzen duten soldataren azterketa agertuko da idazlanean, baita honek dituen kontraesan eta abantailak.

Giltza-Hitzak: Arrantza. Ordainketa sistema. Zenbateko handia. Zenbateko txikia.

En el ámbito de la pesca, el sistema de pago vigente en nuestros días procede del siglo XII. Si bien esto resulta más evidente en el subsector de la pesca costera, algo similar sucede en los subsectores de altura y gran altura. Las formas de pago utilizadas en el siglo XII en los trabajos artesanos y la que hoy en día se utiliza para pagar a los pescadores en las comunidades marineras tienen grandes similitudes. En el presente trabajo se muestra el análisis del sueldo que reciben los pescadores a cambio de su trabajo, y las contradicciones y ventajas del mismo.

Palabras Clave: Pesca. Sistema de pago. Gran cantidad. Pequeña cantidad.

Dans le milieu de la pêche, le système de paiement en vigueur de nos jours date du XIIe siècle. Bien que cela soit plus évident dans le sous-secteur de la pêche côtière, nous retrouvons un système similaire dans les sous-secteurs de haute et très haute mer. Les modalités de paiement utilisés au XIIe siècle dans les métiers artisanaux et celle qui est utilisée aujourd'hui pour payer les pêcheurs dans les communautés de marins se ressemblent énormément. Dans ce travail, on montre l'analyse du salaire que reçoivent les pêcheurs en échange de leur travail, et ses contradictions et avantages.

Mots Clés: Pêche. Système de paiement. Grande quantité. Petite quantité.

1. SARRERA

Komunikazio honetan arrantza munduan hain errotua den ordainketa era aztertu nahi dugu, zatikako banaketa sistema, hain zuzen ere. Arrantza alorreko enpresetan, gutxienez XIII. mendetik hona heldu den ordainketa motarekin jarraitzen da, aldaera handirik jasan gabe. XIII. mendean artisau lanean erabilitako ordainketa metodoek eta gaur egun baxurako arrantzaleei ordaintzeko dagoenak antzekotasun handia agertzen dute (Gaur, 1970: 345, Barandiaran, 1982: 77) munduko itsastar komunitateetan.

“El sistema a la parte es una práctica arraigada en las comunidades pesqueras mundiales” (Sánchez Fernández, 1993: 245).

Itsas-bazter azpisektorean hau nabariagoa bada ere, altuera eta altuera handiko azpisektoreetan antzekoa gertatzen da; hots, sektore bakoitzak badi-tu berezitasunak baina hirurak ordainketa sistema honen barnean sar daitezke. Horregatik hiruren ordainketa sistemei begiratuko diegu.

Orohar, arrantzako sistema honek desberdintasun anitz agertzen ditu, gaur egun, industria izaerako langileek jasotako soldata gainontzeko sisteme-kin. Azken honek honako ezaugarri hauek ditu:

A) Langileak soldata fijoak jasotzen du, enpescariaren eskura bere lan indarra jartzearen, ekoizpena dela ere. Langileak lanaldiaren ondoren bermatua izango du gutxienezko diru kopuru finkoa eta, askotan, soldata finko honi gehitu behar diogu produkzioaren arabera lortu izandako ordain sari osagarria.

B) Soldatak izaera pertsonala badu ere, maila profesional bakoitzak lan sari finkoa berdintsu eta amankomuna du. Soldata masa langile guztien lan sari finkoaren biderkadura izanik: hau da, ez dago langilegoaren artean, langile kopurua dela ere, soldata masa banatu beharrik.

Ordainketa sistema honek ez ditu bakarrik ezaugarri hauek izaera industrial petoko enpresetan zerbitzu alorrekoetan ere aurki daitezke honelako edo antzeko sistemak.

Azterketarako behar izan ditugun datuak Pasaiaiko portuko arrantzaleen-gandik hartuak izan dira.

2. BAXURAKO ARRANTZAREN SOLDATA SISTEMA: DIRU SARREREN BANAKETA

Baxura alorrean dagoen soldata ordaintzeko eraren jatorria lotu behar dugu zuzen zuzenean arrantza artisauetan tripulazioaren artean indarrean zegoen lotura familiarrekin. Hori zela eta, armadore eta langileen arteko harremanetan kontraesanik ez ziren alboratzen, enpresaren egitura familia-

rrak oztopatzen baitzituen mota horretako konfliktoak. Kontraesanak hasten dira sortzen azken urteotan, batez ere, senide taldetik arrotza den langilea sartzen denean.

Baxura alorrean enpresa egituraketa gutxi aldatu da eta ondorioa da ordainketa era mantendu dela ere bere horretan.

Zatikako ordainketa sistema da arrain salmentatik lonjan lortzen den diru kopuruaren banaketa: hau da, untxiak lortzen duen irabazien banaketa arrantzale eta armadoreen artean. Ordainketa sistema honen bidez lan kontratupeko langileak porturatu eta saldutako arrain kopuruaren arabera ordainduak izaten dira. Hain zuzen ere, arrain harrapaketarik ezean ordainketa hutsaren urrena izango da eta alderantziz, arrain harrapaketa ugaria bada tripulatazaileek saldutakoaren alde aurretik ezarritako proportzioaz irabaziko dute.

Gaur egun, baxurako arrantzan indarrean dirauen lan saria ordaintzeko sistema hau ezagutu ahal izan dezagun komenigarria da irabazien banaketari buruzko zenbait kontzeptu argitzea, ikustea zein banaketa egiten den, alegia. Arrain salmentatik armadoreak lonjan lortzen duen diru kopurua bi multzotan banatzen da: “Zenbateko handia” eta “zenbateko txikia” delakoa.

2.1. Zenbateko handia

Kontzeptu honek arrainuntziaren sarrera gordinaren balio bera izango du. Armadoreak harrapatutakoa lonjako salmentan lortzen duen diru kopurua, inolako kenketarik (Tasak, zergak, e.a.) egin gabe izango da arrainuntziaren sarrera gordina. Arrainuntziaren produktu edo sarrera gordina “zenbateko handia” izenez ezaguna da, edo gaztelerazko “monte mayor”ez.

Zenbateko handiak baditu aplikatu beharreko kenkari batzuk, hots; deskontatu behar zaizkion ustiaketa gastuak. Aplikatutako kenkagarriak portu batetik bestera desberdinak izaten dira, nahiz eta aldaketa nabarmenik ez egon Kantauriko portuetan. Gehienetan portuka edo kofradia bakoitzaren arabera erabakitzen dira ustiaketa kenkariak zein diren, hala ere badaude arrainuntziak non euren artean (arrantzale eta armadore) erabakitzen duten zein gastu sartu behar den kontzeptu honen barruan eta zein ez. Pasaiaiko baxura enpresetan honako hauek kontsideratzen dira ustiaketa gastuak, nahiz eta arrainuntziaren batean edo bestean salbuespen bat izan:

1) Kofradiari arrantzuntziak ordaindu behar dizkion kuotak, baita arrain salmentarengatik kofradiak kobratzen duen komisioaren diru kopurua ere.

2) Arrain salmentari hazienda publikoak lonjan kargatzen dizkion tasak edo zergak.

- 3) Arrantzuntzitik lonjaraino behar den arrain garraioa (garraio gastuak).
- 4) Arrainak arrantzuntziak gordetzeko edo salmentarako erabiltzen diren kutxen alokairu, erosketa edo berriztapena.
- 5) Izotza, gatza edo arrain kontserbarako arrantzaleek erabili behar duten beste edozein materiala.
- 6) Itsasoan tripulazioak arrantzaldietan kontsumitzen dituen elikagaiak.
- 7) Arrantzuntziak arrantza lanerako behar duen errekinaren gastua.
- 8) Nabigaziorako itsas aparailu edo kainaberak, beita eta arrantzarako behar denaren erosketa edo mantenuaren kostea.
- 9) Zubiko tresna elektronikoaz gain untzia mantenu gastuak, (margoa, konpoketa, e.a).
- 10) Armadoreari dagokion istripu eta gizarte asegurantza atalaren diru kopurua.

Behin zenbateko honetatik aipaturiko gastuak kenketa eginik, geratzen den diru kopurua armadore eta tripulazioaren artean banatzen da, alde aurretik ezarritako proportzioan. Armadore eta tripulazioari dagokien partizipazioa, hau da zatia, ehunekoetan ematen da. Tripulazioari dagokion proportzioa ez du ezer ikusirik arrantzaleen kopuruarekin, tripulatzailerik gutxiago edo gehiago izan, zatiaren ehunekoa berdina da, ez du garrantzirik zenbat arrantzale ibiltzen diren arrainuntzian zeren partizipazioa orokorra da. Pasaia-ko baxura enpresatetan, ustiaketa gastuak kendurik sarreraren banaketa ohi-koena erdibana izaten da, %50ekoa alegia, bai armadore eta bai tripulazioar-entzat.

2.2. Zenbateko txikia eta bere banaketa

Zenbateko txikia zenbateko handiari esplotazio gastuak eta armadoreari dagokion parte kenduta ondoriozkoa da. Zati hau arrantzuntziko zatietan banatzen da, eta Pasaia-ko arrantzaleen artean partila izena du zati bakoitzak. Tripulante bakoitzari dagokion partila kalkulatu ahal izateko arrainuntzi barnean betetzen duen funtzioa, duen kargua edo betetzen duen lan mota jakin beharra dago, zeren tostarteko soilari zati bat dagokion bitartean, makinistari zati eta erdia edo patroiarik bi partila, esaterako.

Partila tripulazio osoari ematen zaio, patroia barne delarik, patroia armadorea bada ere. Zati bakoitzari dagokion diru kantitatea jakin ahal izateko zenbateko txikia dauden partilengatik zatitu beharra dago. Tripulatzailerik bakoitzak jasoko duen batz besteko soldatan eragin zuzena dute harrapatu-tako bolumenak ezezik arrainuntziaren tripulatzailerik zenbatekoa ere.

Diru kantitate honi gehitu behar zaio “txakurrena” deitutakoa. Astero arrantza kopuruaren arabera untziko arrantzaleen artean, modu berdinez, diru kopuru txikia banatzen da, gehienez jota, 5.000 pztara iristen da, normalean.

“Txakurrena” sortu zen, batez ere, tostartekoen kexuak zirela eta. Tostartekoek uste zuten armadoreak jasotzen zuen zatia gehiegizkoa zela, orduan gehigarri ekonomiko hau adostu zen langile eta armadorren artean Gipuzkoako kostaldean.

“Otros puertos como Pasai Donibane regularon estas prácticas estableciendo la txakurrena. Se trataba de que cuando se lograba una pesca equivalente a 30 cajas se separaban 3 de ellas y su importe se distribuía entre los pescadores y sólo entre ellos. Esto supuso la aparición del equivalente en moneda o compesación en especies.” (Apraiz eta Astui, 1984: 116).

Barandiaran Irizar-ek dioen arabera (1982: 243) 1975. urtetik hona hone-lak kalkulatu da txakurrenari dagokion diru kopurua: 600 kilogramo baino gehiago harrapatzen badira 100 kilogramo bideratzen dira arrantzaleen artean banatzeko. Diru kantitate hau ere armadorearentzat izan daiteke, untzian arrantzan badabil. Kantitate hau untziko arrantzale guztien artean banatzen da zati berdinetan, ez da partilarekin bezala gertatzen, ez baita kontuan hartzen arrainuntzian betetako postua.

“En Gipuzkoa durante la costera de la anchoa una vez que las capturas excedan de 600 kg, se destina el valor en moneda de 100 kg para su reparto entre los miembros de la tripulación.” (Apraiz eta Astui, 1984: 117).

Txakurrenaren balioa astero kalkulatu eta banatzen da. Diru kopurua oso aldakorra izan daiteke, zeren saldutako arrainak lor dezakeen prezioaren arabera baitago, hauek askotan gora beherak izaten dituelarik.

Partilari eta txakurrenari gehitu behar zaie arraipartea, zeren baxurako arrantzaleek ere marealdi bakoitzean euren arraipartea jasotzen baitute. Orohar, harrapatutako arrain guztietatik bi kaxa bereizten dira tripulazioaren artean banatzeko antxo denboraldian. Atunaren kanpainen, berriz, tripulatzaile bakoitzak ale bana jasotzen du eta makinistak bi, kasu gehienetan.

3. ALTUERA ETA ALTUERA HANDIKO LAN SARIEN ORDAINKETA

Arrantza arlo guztietan, bai artisautzan, zein industrial edo alturakoan, lan sarien ordainketa mota zatikarena da. Arrantzako azpizektoreen artean dagoen diferentzia da altuera eta altuera handian arrantzaleen irabaziak gutxiengo diru kopurura iristen ez badira gutxiengo soldata bermatua duten bitartean, baxura arloan ez da horrela gertatzen.

Altuera eta altuera handiko enpresentzat arrantzan ibiltzeko ahalmena jarraikoa da, ez daude, beraz baxuran dauden bezala, kanpainak deiturikoak, eta urtean zehar arrantzan ibiltzeko posibilitaterik badute, zeren arrain demersalak ez baitira migragarriak eta marealdi batean arrain espezie bat ez bada harrapatzen badute aukera beste arrain espezieak harrapatzeko eta horregatik berma daiteke gutxiengo soldata urtean zehar, gora behera handirik gabe.

Hala eta guztiz ere, autore batzuek uste dute baxurako ordainketa altuerakoa baino ekitatiboagoa dela.

“En comparación con la remuneración de la flota industrial se ve que los mandos son los que imponen el ritmo de trabajo a bordo y que su salario depende fundamentalmente del valor de la pesca capturada por lo que el destajo no está ausente de esta flota. Si bien en la flota de bajura se da un bajo grado de división del trabajo y una reducida diferencia salarial entre las diferentes categorías -el salario más alto duplica como mucho el más bajo- contrasta con el alto grado de división del trabajo y la desigualdad de salarios donde se dan diferencias de 1 a 8 entre un marinero de cubierta y un patrón de pesca.” (Palacios, 1985: 427).

Altuera eta altuera handiko arrainuntzietan, gaur egun, gutxienero soldata bermatua 105.687 pezeta hileko da eta diru kopuru honi gehitu behar zaizkio diru kantitate hauek:

1. Antzinatasuna (hiru urteko) 2.574 pzta.
2. Fardela 4.737 pzta.
3. Mantenua (itsas eguneko) 284 pzta.
4. Ohe zerbitzua (hileko) 788 pzta.
5. Lan arropa (eguneko) 60 pzta.

Agintariak (patroiak eta makinistak) beste osagarria dute, 3.889 pzta arrantzu patroiak, 3.546 pzta makinistak eta 3.236 pzta kosta patroiak.

Diru kantitate hauek hileroko jaso behar dute altuera eta altuera handiko arrantzaleek. Diru kontzeptu hauek ez dira gutxienero soldata bermatua bezala kengarriak irabazitako portzentaia soldata bermatua baino handiago denean. Gauza bera gertatzen da ordainsari estereekin, urtean bi izaten dira eta gutxienero soldata bermatuaren baliokideak dira.

4. ORDAINSARI BANAKETAREN AZTERKETA

Arrantza arloan ordainsarien erreperto sistemari buruz ikuspegi orokorra izan dezagun komenigarria iruditzen zaigu zenbait aspektu aztertzea, aurreko orrialdeetan tartekatu direnak:

- 1) Somapeko lana.
- 2) Arrisku ekonomikoaren partekatzea.

- 3) Partekatze kolektiboa.
- 4) Eskulanaren gehiketa.

1) Lehenik eta behin, lan sarien errepertu era honek soma gordinaren arriskua berekin dakar, biren artean lotura estua baitago. (Pascual Fernández, 1989) Hau da, arrain harrapaketarik ez balego, eguraldi arazoak direla edo beste motako eragozpena dela, arrantzaleek bere lanaren truke lortuko luketeen diru sarrera hutsaren urrea litzateke eta, alderantzizkoa ere, arrain tona batzuk porturatzen badituzte arrantzaleek harrapatutakoaren arabera kobratu egingo luketeela. Arrantza da, eta are eta garbiago ikus daiteke baxurako azpisektorean, ordainketa praktika hau bizirik dirauen arlo ekonomiko bakarranetakoa. Gainera baxurako arrantza alor honetan ordainketa sistema hau ez dago bakarrik baimendua, ordainketa era hau instituzionalitua da.

“Las reglas del sistema de pagos son comunes a toda la costa, dándose una colaboración sistemática entre todas las cofradías y puntos de venta del Cantábrico.” (Rubio-Ardanaz, 1998: 249).

2) Bigarrenik, ordainketa sistema honetan harrapaketa inguruan egon daitezkeen gora beherak, arrantzaleen gainean partekatzen dira, arrisku ekonomikoetan parte harturik. Harrapatutakoaren diru sarrerak eta soldatak arrantzatutako tona, harrapakin edota lonjan lortutako salneurriaren mende daude eta hiru faktore horiez gain arrantzaleek ez dute esku hartzerik.

Zein arrain motaren bila irten, zein bide jarraitu, zein diren erabili beharreko arte eta metodo eraginkorrenak edo gisa horretako erabakiak beti armadoreak (altuera eta altuera handian) eta patroiak (baxurakoan) hartuko ditu eta tostartekoak, nahitaez, onartu behar du erabakitakoa. Hala eta guztiz ere, hainbeste erabaki garrantzitsuetan parte hartzen ez badu, arrantzaren arriskuan partekatza beharturik aurkitzen da, hainbestean.

3) Hirugarrenik, eta modu berean, tripulatazaileek arrisku ekonomiko bereganatu behar dute era berdinean, hau da, arriskua kolektiboki hartuaz eta baita modu berdinez ere. Arrainuntziko langile guztiek asko irabaziko dute ala ezer gutxi, ez dago alde horretan desberdintasun handirik beraien artean.

4) Laugarrenik eta azkenik, armadoreak (baxurako alorrean, batez ere) horrela hamasei, hamazazpi edo behar dituen langile bere eskura izango ditu harrapatutako erdia entregatze soilarekin. Armadoreak zenbatekoaren proportzioaren truke nahi duen eskulana erabil dezake, zeren langilearen ugaltzeak ez dio armadoreari suposatzen gastuen ugaltze handiagorik (bakarrik gizarte asegurantzaren zatia) eta bere irabazien diru kopurua, zenbateko txikiaren proportziora aplikatuz, berriz, berdin berdin mantenduko da. Egoera hau dela eta, ulergarria da zenbait armadoreen iritzi teknologian edo lan mekanikoan inbertitzearen ordez eskulan gehiago ipintzea errentagarriagoa dela, lehorreko industrietan gertatzen ez den bezala. Langilearen ikuspegitik begiratuta, alderantzizko iritzia da, zeren langile kopurua handiagotze honek arrantzalearen diru sarrera pertsonala murrizten du.

Lan sarien ordainketa zatika sistema hau, igarotako garaietan, tripulazio-kideen arteko lanen ondorengo banaketa orekatua edo ekitatibotzat jo zitekeen, baina, gaur egun, banaketa sistema honek kritikatzailleak baditu, baita arrantzaleen artean ere.

Hauetako batzuk, euren kritika azaltzerakoan, aspektu desberdina azterten dute sistema honetan, adibidez Bidet-ek (1974).

Bidet-en aburuz ordainketa sistema honekin armadoreak ziurtatzen du beti kapitalaren zatiren bat eskuratuko duela, honela itsas inguruneekiko aldaketa klimatiko zein naturalek sortarazten dituzten zailtasun produktiboak ekidin ahal izango ditu, hain zuzen ere. Produktioaren emaitzak edozein direla ere, kapitalaren portzentai konkretu bat beti ziurtatua izango du unti jabeak.

Ildo honi jarraiturik, Bidet-ek uste du honelako ordainketa erak ziurtatzen duela ere produkzio bideen jabea ez den arrantzaleak bere lana eraginkortasun eta iraunkortasunez beteko duelarik, unti jabea izango balitz bezala.

Arrantza lanak aurretik ezarri gabeko ordutegietan garatzen dira, baita balia bidearen ezaugarriak eskatzen dutela ere, une ez jakinetan lanaldietan areagotzea. Langileen irabaziak harrapatutako arrainen arabera direnez, edo harrapaketa hauen menpean daudenez zuzenki, armadoreak ziurtatua du, dagoeneko, lan errendimendu eraginkorra arrantzale zereginetan.

Bidet-ek uste du, bestalde, ordainketa sistema honek ere lortzen duela ezaugarri ideologikoa duen esangura. Ordainketa sistema honek lan komunitatearen kohesioa lortzen du, gizakia bere lanari, arrainuntziari eta produkzio bideari binkulatuz eta, bide batez, enpresaren helburuetan uztartuz, produkzio bideak bere jabetzakoak ez badira ere.

Lansaria bermatua izateak, arrantzaleari baimenduko dio bere buruaren antolaketa ekonomikoa eta hor dago ordainsari bermatua izatearen garrantzia. Horrela bada bere bizitza edo bere familiarena alde aurretik planifika dezake, eguneko gastuei aurrera egiteko, etxebizitzaren alokairu edo hipoteka ordaintzeko eta abar. Pasaian kexurik nabariena arrantzaleen zenbait emazte eta alabarengandik entzun ditugu, zeren azken finean, senarrak itsasoan dauden bitartean hauek baitira etxeko eguneko gastuei aurre egin behar dietenak:

Baxura alorrean ordezkariak sindikala duten sindikatuen artean adostasuna erabatekoa da ordainketa sistema hau antzinako kondarra dela eta hobetu daitekeela kalifikatzerakoan, baina ez sistema hau hobetzeko egon daitezkeen alternatibekin.

1998.eko neguan, baxura flota geldirik zegoenean, atsedean uneetan, bazarra ugari egin ziren euskal portu guztietan gai hau aztertzeko. Sindikatu batek bota zuen eta eztabaidatu zen ideia: martxoan, beti bezala, hasi lanean eta gutxieneko soldata hilero kobratu behar zela. Gutxieneko soldata kalkulatzeko aurreko urteko kanpainaren arabera egingo lirake aurrekontuak. Adibidez antxoaren iazko kanpainan 600.000 ptzako diru sarrera egon bazen

150.000 pztako soldata ematea hilero eta kanpaina bukatzerakoan kontuak egin armadore eta langileen artean. Gehiago banatzeko adina irabaziko balitz, arrantzaleari legokiokeena ordainduko litzateke, baina harrapaketa gutxiago balitz, hau da arrantzaleak, aldez aurretik, behar baino gehiago kobratuko balu momentuko kanpainan, hurrengo arrantza kanpainan egingo lirateke kontuak.

1998.eko negutik hona, ideia hau ari dira eztabaidatzen euskal portu gehienetan eta oso harrera ona izan du tostartekoen artean. Hala ere aurkeztutako alternatiba honek baditu jarrera kontrakoak.

Armadore eta kofradiako buruek, adibidez, uste dute horrelako aldarrikapena planteatzea bakarrik hondamendia ekarriko diela eta sindikatuei leporatzen eta galdetzen diete badirudiela krisian dagoen sektore ekonomikoa suntsitu nahi dutela. Kofradiek ez dute onartzen soldata sistemen aldaketa zeren, euren ustez, egitura aldaketa bortitza da eta horrela kofradiek arrantzaleengan eta sektore ekonomiko osoan eragina galduko luketeela eta sindikatuek, berriz, indar gehiago irabaziko lukete. Orduan kofradiek, gaur egun, betetzen duten papera galduko luketeela sindikatuena indartzuz.

Hori dela eta, gero eta jende gutxiago erabakitzen du arrainuntziren batean enrolatzea, arrantza hasten diren gazteak, batz best 2 urte iraten dute lanbide horretan. Horregatik ez da arraroa ikustea Pasaiaiko baxura alorrean Senegaldar, marrokiar edo kabo Berdiar arrantzaleak.

BIBLIOGRAFIA

- APRAIZ, J.A. eta ASTUI, A. (1984) "La pesca en Euskalerría, la pesca de bajura" in *Itsa - soa, el mar de Euskalerría, la naturaleza, el hombre y su historia*, Etor, Donostia.
- BARANDIARAN IRIZAR, F. (1982) *La Comunidad de pescadores de bajura de Pasajes de San Juan. Ayer y hoy. Estudio antropológico*, Oiartzun.
- BIDET, J. (1974) "Sur le raison d'être de l'idéologie. Les rapport sociaux dans le secteur de la pêche, *Le penseé*, 174, (53-67).
- GAUR (1970) *La pesca de superficie en Vizcaya y Guipúzcoa*, Caja Laboral Popular.
- PALACIOS, I. (1985) "Rasgos estructurales del sector pesquero onubense" in MONTERO LERANDI, J.M. (1985), *Procesos de industrialización y condiciones de trabajo del sector pesquero onubense*, Junta de Andalucía, Sevilla.
- PASCUAL FERNÁNDEZ, J.J. (1989) "La pesca artesanal y el sistema a la parte" in *Jornadas sobre economía y sociología de las comunidades pesqueras*, Ministerio de Agricultura y Pesca, Madrid; 574-574.
- RUBIO-ARDANAZ, J.A. (1998) *La vida arrantzale en Santurtzi: Cambios económicos y socioculturales entre los pescadores de bajura (SS. XIX-XX)*, Santurtziko Udala, Bilbao.
- SÁNCHEZ FERNÁNDEZ, J.O. (1993) "Antropología de la pesca" in AGUIRRE BAZTAN (1993) *Diccionario temático de antropología*, Boixerau, Barcelona.